

KOHERENTZIA

Joan den abenduaren 29an argitaratu genuen Pio Aguirreren idazkian, gure lagunak Printzipioak edo Balioak azpimarratzen zituen, eta, batez ere, horiei lotutako portaerak. Eta zera zioen:

“Kontua ez da soilik Printzipioak edo Balioak zerrendatzea, baizik eta horien esanahian sakontzea eta, batez ere, eskatzen diguten portaera pertsonalean sakontzea. Zer egin behar dugun eta zer ez”.

Eta balio eta kontzeptu hauek garatzen zituen: "pertsona erdigunean", "aberastasuna sortzea eta banatzea", "belaunaldien arteko elkartasuna", "parte hartzea eta konpromisoa", "konfiantza", "eskuzabaltasuna", "talentua"...

*Balioei lotutako portaerek, Balioek eskatzen dizkiguten portaera pertsonalek, **Koherentziarekin** dute zerikusia.*

*Pentsatzen dugunaren eta egiten dugunaren arteko **koherentzia**, esaten dugunaren eta egiten dugunaren artekoa, gure esperientzia kooperatiboaren Printzipioek eta Balioek esaten dutenaren eta gure jarduera profesional, sozial eta pertsonalean egiten dugunaren artekoa.*

Eta balio hori aztertzen dugu hilabete honetan Arizmendiarrietaren gogoetetara joz.

Orain arte herriari egin diogun ekarpena esperientzia kooperatibo hau izan bada, hemendik aurrera garapen komunitarioa eskaini beharko genioke, baina arduraz eta koherentziaz. p126

Gure koherentzia falta salatzen du, gure kontraesanak aurpegiratzuz:

Indarrrik gabe edo zaharkituta gelditu den burgesia baten zenbat ohitura ari gara berriro bizitzen pentsatuta aurrerakoiak garela eta horregatik harro egonda, benetan kontserbadore eta tradizionalistarik txarrenak izanik. p233

Erosotasuna, nabarmenkeria, luxua eta iriotea garapenaren emaitza dira, garapena giza-aurrerabiderako eta ongizaterako bitarteko eta abiapuntutzat hartu beharrean helburutzat hartzen denean. p512

A zelako droaa duaun dirua. zeren dirua lortzeko estudiantu. lan edin eta denetarik asmatzen baitu norberak. aiza duintasuna. lanerako eskubidea. iustizia sozialaren eskakizunak eta halako gauza errespetagarriak ahotan hartuta: baina. a zelako samur ahazten diren gauza horiek behin dirua eskuratu eta erabili. prostituitu eta edozein zirtzileriarren nahiz apetaren truke aldatzeko, orduan nahikoa izaten baitugu, geure burua babes-teko, "nirearekin nahi dudana egiten dut" esatearekin. p513

Asko bereizten gara aberatsarengandik dirurik ez dugulako, ze, pentsatzeko erari eta jarduteko moduari dagokionez... C23- 1962/07

*Don Jose Mariak **koherentziak** duen garrantzia azpimarratzen du, gizarteak esperientzia kooperatiboan duen konfiantzarekiko, hau esaten duenean:*

Gure kezka nagusia oraina bada, eta helburu bakarra gure ondarea handitzea bada, ez gara harritu behar, giza sustapenaren politikan funtsezko aldatetak egitearen alde egiten dugularik, gure judizioen zintzotasunean sinesten ez badute. Gure testigantzak huts egingo zuen. C40- 1963/12